

BIZKIKERIAK MODAN JARRI ZAIZKIGU

AZKEN-aldi ontan «bizkikeriak» modako jartzen ari zaizkigu. Prantzesez «jumellages» esaten dute, ta erderaz «Gemelaje»-edo esan bearko da. Zer da itz onek adierazten duana?

Bizkiak edo bikiak zer esan nai duan ez al-dakizu? Anai-arreba bizkiak jaio dirala esaten degunean, bada-kizu zer esan nai degun, ezta ala? Ba, orain Euskalerriko alde bateko ta besteکو erriak alkarren biki balira bezela artu-eman estuagoa sortu nai lukete, alkarri lagunduz.

Onela egiñak dira Baiona ta Iruñe, Lizarra ta Donibane Garazi. Beste ainbeste egin nai digute orain Baigorri/ko Saint Etienne'k eta Elizondo'k. Bizki-izate auek folklore ta tripa-festa besterik ez egiteko sortzen ba-dira, utsa litzake ortik letorkigun mesedea. Eibar eta Baigorri ere beste ainbeste egitekotan ote-diran da otsa.

Bizkiak bi eratara ikusi ditezke: batu ditezke bi erri azpegi berdiñekoak edo desberdiñekoak. Onela bizkitu ditezke Donostia ta Miarritze, biak turismo-erriak diralarik. Zer ote-da obe? Bi erri berdiñak alkartzea, ala bi erri desberdiñak (Eibar eta Baigorri bezela), batera ekartzzea?

Au guzi au, bizkitasun ori nola artzen dan ikusita gero erantzun ditek. Guzia, urtean bein jai bat dantzaldi ta itzaldi ta bazkariarekin egiteko bestetarako ezpada, bizkitasun ori egin edo ez egin berdin litzaiguke.

Baiañ bi erri bizki izentzake ezertarako izan bear ba-du, biak alkarri daukatenetik emateko ta artzeko izan bear luke. Batak bestea obeto ezagutuaz eta lagunduz, alkarren arteko artu-eman estuagoa sortzeko bear genduke bizkitasun ori. Ta ori egiteko, obeto dator alkar-tze ori bi erri desberdiñen artean egitea. Bata nekazari-erria ba-da, bestea industri-erria izan dedilla. Onela biak alkar osatu dezakete etxean ez duana besteagandik artuaz.

Onela begiratuaz, obeto ikusiko genduke Eibar Baigorrikin bizkitzea, Elizondo ta Baigorri bizkitzea baiño. Onela Baigorri'k artu dezake Eibar'engandik industri-eragiña; ta Eibar'ek artu dezake Baigorri'gandik, onek duan euskal-aldea ta landa-giroa, Be-Naparroan ain bizi irauten duana.

Diranak dirala, bizkitasun edo bizkikeri au benetan artu bear da edo bertanbera utzi bearra da. Danzalditxo, ikurrin-zapitxo ta tripa-festaz aspertuta gaude. Sakontasunik gabeko jai merkeak, auzoari saltzen dizkiogu.

Zurgin Zaharra

Alde ontan «Arotz zaharra» esango genuke. Baiñan arotz ala zurgin, burrian ala zurean aritu, biak langille, beargin, biak alatsu. Izen ori dala-ta T. M. OLASO idazle ta olerkari got-tarrak komeritxo xarmagarri bat egiña du. Beste izenez: "Lau kantari ta txori bat" deritza.

Azken urte autetan Lapurdi aldean maiz txalotua izan da ikusgarria. Orain Donostia'n "Teatro-astea" izan dala-ta "Iztunde'ko taldeak" Mytze'ko 15'n San Isidor eguzee Antzoki Zarreen (Teatri Principal) aretoan antzestu zutena.

Antzirudi errikoiez, umore on, poesi, musika ta dantzaz josi ta ornitua dago "Zurgin Zaharra"; ta publikio-jendeak atsegin-ez eta pozkarioz entzun ta ikusi zuan lan eder au. Bai alajaiña! Labor-iritzirik jendea uzten dutenetakoa bait da. Bere txikiak aundi da poesi ispiritu ta giroz bete da dogaloko. Eta gertakizuniek ez izana gatik; ta ipuia utsa ba' da jardua-lagunak, ederki ikusiak daude, ta "karikatua" ta guzi gizatasunez eta egi-antzez beteak. M. Olaso eder-giroa ta kutsua sortzen mutilla degu; Teatro-jorran ez orrenbeste ordea. Ari geiegi erabiltzen ditu ta ta korapillorik lotu ta azkatu gabe zintziliek gelditzen dira. Lan ontan bait da-

go, ene iritziz dramatikaren bar-ne-muñia. Bernard Shaw esan zuen arabera: «no conflict, no drama». Poesia'k beti izango du lekua berezi bat Antzertia'n baiñan gaiak sendaogo ebaki ta josi bear dira, ene ustez, Teatro'k eskatzen duenez.

Zurgin Zaharra'ren kanta, bertso, ta dantzaldiak unigarriri dituztu; eta bertan agertzen diran nexka-mutil begikoak alako alai-tasun bizi bat ematen diote. M. Olaso idazle ta olerkari yajoga degu ta teatro-lana bururatzen saietzen baldin ba'da gure komerigille gailenena izatera irixi ditek. Esatera zarrak dionez: «Olaso, gixti batzuk i luso». Beraz, zaronak eta beti aurrera Telespor adiskide!

Iztunde ta Deklamazio ikas-tolakoak, beñere baiño oparogo ta ugari indarrean agertu zizai-zkigun. Guziok gogotsu, naiz, aur, gazte ta jende larria. Pentsa! Ea 20 lagun inguru lan egin zutela esanakin adierazia dago. Ezin bada, banan-bana guziok aitatu. Baiñan, nola aztuta utzi, batik bat Etxebeste ospetsua Beñat paperean?... Amilibia, dantzari, Barriola, eskale, Alba "Dies Irae Xantre itxuran...". Atxukarro, Agirre, Garayalde nexka mutilak, Etxabe, Ezkurra, Aleman ta gainerako andere-ndereñoak?... Guziok ondo

Euskalerria-ren atzeratasunaren iritzak

Uste oker batzuen zuzenketariari buruz

Berris ere kritika gisan ari naiz. Euskaldunak zibilizazioan oso berandu sartu ziran iritzia anitz za-baldia dago. Unamuno bera ere uste orrekin bizi zan, Euskalerriko seme jakintsua izanarren. Ta adibide ona degu, jakin genezan ikasien artean ere uts aundiak egiten dirala.

Uste det, Euskalerria, beti joan dala Europako sarkaldearen giroari lotuta. Unetan atzerago eta unetan aurreratuz, baiña beluñik-beluñ jarraitu duala garalari-garriko aurrerapeneri. Arriarloan, Franko-kantauri kulturaren biotzean arkitzen zan gure erria. Eta, Dordohatik Asturiasera dijoan katean, anitz arzuol ditugu arri-tresna, dibuji ta pintura, giza-zurgin, turrezko ontzi, eta abarren agirik dituzte-nak. Beraz orduango euskaldunak ere bazituzten ingurukoekin ar-emanak. Gañera, zeguru asko, berdiñak ez baziran ere, antzerako ta-kuntzetan mintzatzeko ziran Arri-aroko garai artan.

Unetan atzerago gelditu baziran ere, beste erriak bezela aurreratu zituzten auzoko menderetzallan gorra-berak. Erromatarrek sartu zira-na ez dago dudarik. Ta alek, menderetzalle baiño geiago izan ziran meatzen probetxua billa etorriak. Oyarzuango Arditurriko meaztegi-tan da ezagun. Eta, bear bada, alengandik ikasi zituzten euskaldun-ak burniaren lanak. Ordurarte, artzaintza eta, bear bada, labora-ritzara, elazerekin batean, geiago emanak. Ta, arrezkero, bestean marxtan ibilli dira, gutxi-gora-bera. Baiña, ala ere, zenbait jakitunek utsegite aundiak izan dituzte Euskalerriari buruz. Beti, erri atzera-tua balitz bezela.

Erri atzeratuaren uste ori, gien-bat ere, mintzairaren berezikuntza-tikoa da. Beste ikuntza bat izatea gaitik ar-emanetarako almenik ez balukere bezela.

Adibidez, oraintzu egin diran bi uts salatuko ditut. Uts oiek aurre-tiko beste uts batzuetan dituzte beren iturburuak. Esan degun be-zela, Unamuno bera ere, uste orre-tan erori zan.

Euskaldunak berandu egin omen ziran kristau, Arri-aroa itxas-er-tzean bakarrrik izan omen zan, ta abar. Lakarra-k 1956-an Urkixo Mintegian egin zuan itzaldi batean zion, Bizkal-Gipuzkoetan etzala ezagutu erlijorik erromaniku ga-ralari, Naparroan eta Araban ba omen zan Erdi-aroan. Baiña ez beste probintziak oietan, (lan au argita-ratua izan zan Vasconia Medieval, historia y filologia izanarekin).

Lakarra jauna oso jakituna da kontu orretan. Baiña penagarria gure probintziaren agirik ez ezagutu bearra. Leniz Ibarrean zen-bait erromaniku agiri daude ta

merezitako txaloak irabazi zit-pzten. Eta danen gañetik, go-resmen berezia M.ª Dolores Agir-re andre zuzendariak jokua on-do ikasia ta tajuz, antzezkiuzun oroiragiri bat gertu zigulako. Be-joandizula!

Berriz, ere «Zurgin Zaharra» mun nai pozik artua izango da-la uste degu. Lan ederra ta atse-giña bai da. Orrenbeste lan eta neke gertutzen artuta ta gero, Donostia'tik kampo, Euskal-Erriaren zear aizatzea nai li-tzake.

IBALAN

uste izan da Arabako inpluentzia zala. Baiña, Leniz-tik Gasteizera bitartean ezta beste erromaniku agirik, zerbat aparte dauden Le-gutiñanoko inguruko ermita bat eta Elosuko San Migelen eleizaren atea izan ezik. Azken au ez zan ezagu-ter erromaniku bezela neuk gaz-teizarrerri aitzen eman arte. Ta, oraindik izan ditzake ezagutzen ez danean bat, Gipuzkoan edo Bizkai-an izan ditzakean bezela. Baiña, Deba Ibarretan bertan, Leniztik aparte, Oñatin, Eibarren eta Astigarrubian arkitu dira erromaniku agirik. Gero, Irunen, Pasain, Tolosan, Al-bizturren, Itxason, Berastegin, El-duyenen, Urnietan eta abar. Beraz, Gipuzku guzian zabaldurik di-ra arkeoloji testigantzak. On Manuel Lekuonak ederki zion bezela, "Egan" aldizkarian, gure probint-ziak, eleiza oso bat biltzen ez bada ere, bai, nalkoa egiri dudarik ez izateko erromanikoa asko zaba-ldua zegoala.

Bizkaiari berriz, Bakioko San Pelayo eleiza, guziz erromanikoa da, eta Bakio Arabatik eta, batez



ere, Naparrutik oso urrutit dago, aien inpluentziakoa dala uste izateko.

Baiña, oraindik aurrerago joan genezake. Zalantzak aldentzeko, emen dezute Astigarrubiako eleiza-ren leio bisigotikoaren fotografi bat. Berari buruz, lan bikain bat argitaratu zan "Boletin" Amigos del Pais-koan Lekuonak (ikus, igazko irugarren zenbakian 193/199 orrialdeak). Baita era berdiñeko bataio-ponte bati (ikus "Egan" 1960, 3-6 zenbakian, 177/181 orrial-deak). Bataio-ponte ori Ormaizte-gin arkitzen da.

Bilboko Museoen ere bada visi-gotiko pitxartxo bat Mañariko Iru-rieta arzuolan biltatua (ikus, Agir-re Andres-en Materiales Arqueo-lógicos de Vizcaya-ren 206-garren orrialdeak). Agiri oiek ba ote dute berriak?

Jakifia, erlijioa, garaia aietan uña batzuetan finaturik egoteak esan nai ez duana, denean zabaldua egoala eta Euskalerri guzi-guzia za-la kristau. Baiña era berdiñen dau-de gañerako erriak ere. Asturias-en, adibidez, Naranco-ko eleiza da-gaolaita Asturias guzi kristau zala pentsatu bear al degu?

Berdiñtsua da Maluquer-i gerta-tu zitzaiona. Maluquer de Montes arkeologu famatuak ere, Las co-munidades Prehistóricas alavesas y sus problemas izenezko itzaldi bat eman zuan Gasteizen, geroago "Bo-letin de la Institución Sancho El Sabio"-ren lenbizko aldizkarian argitartua (1957-garren urtean).

Bertan zion, Araban, ondorengo Arri-aroa bakarrrik ezagutu zala, lenengoa ezetz. Au da, Paleolitikoa ez zala izan; neolitikoa aisi zala, Araban, gizonaren sorkunda.

Maluquer-ek antz daki arkeolo-giari buruz, baiña ez ordea Arabako arkeologiaz. Berak uste zuen Araban etzala arkitu gizonaren bi-zitan agirik ar-zuloetan. Baiña urte asko lenago, Barandiaran-ek arkitu zituan troglodita urratzak Murua aldeko Mañuleurretoako Dibatxon eta Artilloren-Eta. Ori nalkoa ez bazan, arrezkero, Juka-noko Solakueban alntziñako pintu-rak ere arkitu dira (ikus, "Muni-be" 1961-eko lenengo zenbakianen 45 orrialdeak). Beraz, aurretiko Arri-aroa ere bada Araban, eta abe-ratsa gañera.

Dabilenari gertatzen zaizkion utsak dira. Ta, uts oiek, esan de-dan bezela, gure erriak inguruko-ekin, ikuntzak eta folkloretaz duan desberdintasunean dituzte beren iturburuak. Euskaldun basatiarra-ren iritzia asko zabaldua dago zen-bait jakituen artean eta urteak bearko dira ori uxatzen. Ez jakin, Americo Picaud berari ere etzi-zituan orrelako zerbat gertatu. In-guruko erromantze ikuntzen on-duan, gurea basatiarra idurituko zitzaion noski. Ta, denbora aietan ez zan arritzeko, oraindik denbo-ra asko ez dala ere, nor eta Orte-ga y Gasset-ek ere ez bat zuan uste asko ohea gure ikuntzari buruz.

Gauza batzuetan jakitun izateak ez du esan nai danean maixu dala. Menendez Pelayo-ri ere ori bedori gertatu zitzaion Azkoitiko zalduneri buruz.

Ezta, nik emen diodanak ere, ezta esan nai euskaldunak besteak baiño geiago edo oheagoak gerarik; ez geiago eta ez gutxiago, ez txar-ragoak eta ez oheak, beste era ba-teko erri bat baizik. Errien berezi-kuntza ez dute egiten mugak, ez eta ere gizonak, izakerak baizik. Ta, gut, txarragoak edo oheagoak, gure izakerak ditugu. Ta, hñor despreziazteke, geureari eutsi bear diogu, bestean onak geureganduz aal dala.

Orregaitik, gutxi balio du aurre-tikoak zer ziran. Zer geran da ba-liokoak. Erri baten jaiotzek ez du murreririk. Ez gera jaiotzen gure borandatez. Orregaitik, beste errie-takoak errespetatu bear ditugu, be-geri gure errespetatu eraginaz. Ordu larri autetan ere, ez gera aitzu bear, denok degula bizi izateko eskubi-dea.

Aipatu ditudan jaun olen azal-penak etziran gure irañez, baizik ez ezagutuzte eraman zituan or-tara. Uste okerrren iturburuak al-kaar obeto ez ezagutzetik datoz. Ta maitezko ongi ezagutzeka bezela-korik etza. Menpertzaleak beti arkituko dituzte etsiak Orregait-ik, erri ta gizon menpertzeko erak amor ematen ez duten artean, ezta izango pakirik, ez eta egiako maitsunik. Eta bai edozertariko kalteak, normal uste okerrera era-mateko.

J. SAN MARTIN

